

Lan-eskaintza

Deep tech startup founder – Mugikortasunaren/Trenbideen sektorea

SAFEMOB PROIEKTUA



SAFEMOB trenbideen merkatuan segurtasun eta eragiketen efizientziako funtzioetarako adimen artifizialeko soluzioak ezartzen nazioarteko erreferente izateko sortu da. Ezarritako proiektuen merkatuan baliozkotutako ikusmen artifizialeko teknologiatik abiatuta, balio-proposamenaren ardatza da adimen artifizialeko trenbide-soluzioa sortzea, tokian eta modu efizientean bideo-fluxu ugari prozesatzeko gai dena, azken belaunaldiko teknologien erabilera ahalbidetuta. Soluzio horren diseinua bi fabrikatzaile handiekin alderatuta egin ahal izan da.

Joan proiektura



Jardunaldi osoa



Donostia-Bilbo



Hibridoa

Bilatzen den profilaren laburpena

Enpresa talde teknikoarekin batera zuzentzeko zuzendari exekutibo (CEOa) ekintzaile baten bila gabiltza. CEOa enpresa-garapena sustatzeaz arduratuko da, merkaturatzeko estrategia bultzatuko du, eta zorroko proiektuak kudeatuko ditu. Lankidetza estuan arituz, Lankidetza estuan arituz, CEOak eta talde teknikoak ikuspegi estrategiko globala osatu eta egikarituko dute, teknologiaren industrializazio-planaren bilakaera sustatzeko.

Erantzukizun gakoak

- Enpresaren ikuspegia eta ibilbide-orri estrategikoa definitu eta egikaritzea.
- Errendimendu altuko taldea osatzea eta kudeatzea, nagusiki negozioak, eragiketak eta elkarteak garatzeari dagokionez, I+Gko nukleoa osatuz, hazten jarraitzen duen neurrian.
- Lehenengo erabiltzaileak, bezero estrategikoak eta industria-kideak identifikatu eta erakartzea.
- Aiantza estrategikoen, merkataritza-lankidetzen eta lizentzien akordio posibleen garapena zuzentzea.
- Merkataritza-estrategia definitzea (segmentuak, prezioak, kanalak).
- Modu aktiboan parte hartzea funtsak biltzeko ahaleginetan, dirulaguntza publikoak, kapitalaren finantzaketa eta elkarte estrategikoak barne.
- Enpresaren finantza-alderdi guztiak zuzentzea, aurrekontuak, finantza-plangintza, aurreikuspenak eta txostenak egitea barne, kontabilitate eta finantzako kanpoko kideekin batera.
- Teknologia-taldearekin eta aholkulari espezializatuekin batera lan egitea arauzko ibilbide-orria definitzen eta egikaritzen laguntzeko.
- Lankidetzan aritzea berrikuntza teknikoak merkaturako prest dauden eskaintza bihurtzeko, produktua merkatuari eta merkataritzaren ahalari egokitzen zaiela bermatze aldera.
- Merkaturatzeko estrategian eta bizi-zikloaren plangintzan parte hartzea, I+Gtik merkaturatu bitarteko trantsizioa babestuz.

Profila

- Mugikortasunaren sektorean sarea ezarrita izatea, eta interes berezia izatea trenbide-sektorean (material higikorra eraikitzea, mantentze-zerbitzuak, ekipo osagarriak...).
- Masterra izatea enpresen administrazioan, ingeniartzan edo lotutako arloetan.
- Esperientzia izatea eraikuntzan eta negozioen garapenean.
- Gaztelania eta ingelesa menderatzea, eta negoziatzeko eta komunikatzeko gaitasun bikaina izatea.
- Ikuspegi estrategikoa izatea, egikaritzera bideratua.
- Lankidetzarako prestutasun handia izatea, eta taldearekin batera ahalegina lerrokatzeko gaitasun handia edukitzea, misioaren eta enpresaren hazkuntzaren mesedetan.

Zer eskaintzen dugun

- Landutako balio proposamena eta baliozkotutako teknologia dituen konpainia batean bazkide maioritarioaren profilarekin sartzea.
- Teknologia operatiborako sarbidea, hedapen eta esperientzia errealekin.
- Dagoeneko existitzen diren bezero eta bazkide gakoak portfoliorako sarbidea.
- Finantzaketa bilatzeko euskarria (I+G, arrisku-kapitala).
- Venture building-eko aholkularitza estrategikoko prozesu batera berehala sartzea.

Interesa duzu?
Sakatu hemen, mesedez